

Gela multimedia prest dago, Ikus-entzunezkoak lantzeko

2006/06/22

HUHEZIIn Ikus-entzunezko komunikazioan diharduten ikasleek prest dute gela multimedia bat, erabat digitala eta material berriarekin hornitua. Gela horretan argazkigintza landuko da, edizio elektronikoa, **multimedia produkzioa**, bideo produkzioa eta audio produkzioa.

Gela ia amaituta dago, eta bertan ikasleek honako azpiegitura hauek **aurkituko dituzte**:

- Lau gela, bideo ediziorako. Horietatik, bi bereizmen handikoak.
- Estudio bat audioa lantzeko. Kontrol gela bat eta mintzalekua, dena 5.1 audio kalitatearekin.
- Bost ordenagailu autoediziorako eta multimedia lanak egiteko.
- Inprimagailu bat kalitate fotografiko gorenekoa, posterrak-eta egiteko.
- Bi bideo kamera bereizmen handikoak (HDTV) eta bolante bat grabazio berezietarako.
- Lau bideo kamera (Mini DV), erdi mailakoak.
- Bi argazki kamera, bata profesionala eta bestea (12 MP) erdi profesionala (6 MP).
- Bi ekipo argiztapenerako.
- Lau mikro harigabeak.

Tx Multimedia enpresak lagundu du instalazioa egiten, eta **Angel Katarain** soinu ingeniaria arduratu da instalazioen audioa fintzen. Proiektuaren ikuskatze lanak, berriz, **Mikel Usabiagak** egin ditu. Ikasleak hasiak dira bertan edizio lanak-eta egiten.

